

ITXAS-ONTZIGINTZA (V) EMOITZAK ETA ETORKIZUNA

Bizkaia'n euki doguzan ontzi-olak eta España'koak alkarren parean ipiñi ezker, ara zein dan ondorena: 1964n. urtean gureak ziran 26'tik 7. Beste urte batzutan be antzekoa da maillea, 1973n. urtera arte. Gitxi gora-bera egiten diran lau ontzietatik bat izaten da Bizkaia'n egiña. Or ikusten da gure ontzi-olak garrantzi aundia daukela laterriaren barruan eta Europa' n. Eta egin-dako ontzien zenbakiari edo guztien artean daukezan tonal begiratu ezker, antzeko zenbakiak urteten dau: Laurena da Bizkaian egiten dana.

Bederatzi dira Bizkaia'n daukaguzan ontzi-olak eta zortzi Bilbao'n dagoz, bestea Gernika-aldean.

Bilbao'ko erreka-ondoan dagozan ontzi-olak eragozpen bat dauke, ontziak itxasoratzea ez dala erreza. Dana dala, asteen ontzi bat baiño geiago itxasoratzen da eta ez da izaten eragozpen larregirik. Egin be itxasoratu leikezanik aundienak baiño ez dira egiten. Ezker-aldean Olabeaga, Kadagua ta Sestao'koa dagoz eta beste aldeko ertzetik ur-urrean geratzen da itxasoratzen dan ontzia. Eskoi-aldetik ontzi-ola bi dagoz eta oneik lantegiaren eta ibaiaren bitartean Bilbao'tik Areetara doan bidea dauke, orregatik bidea itxi egin bear izaten da. Gabaz egin bear izaten dira itxasoratzeak. Ruiz de Belasko Ontzi-olak itxasoratzeak alboz egiten dauz. España'n ez dago beste olakorik eta mundu guztian be gitxi.

Ikusi dogu ba, orain artean zelako garrantzia euki dauan Bizkaia'n ontzigintzan, baiña itaun bat egin bear dogu idaz-lan au amaitu baiña lenago: Ba-dauko etorkizunik gure ontzigintzak? Iraungo dabe gure ontzi-olak? Igarle-larla beti da arriskutsua, baiña sartu gaitezcan lan orretara. Gaiñera ez da aitzu bear ontzigintzak ikutu aundia artzen dauala inguruan sortzen diran arazoetatik, politika, langintza ta ekonomi-arazoetatik. Sarritan gaiñera urriñeko lurraldeetan sortu diran arazoak izaten dira, esaterako arrorio-iturri barri ta aundi ba agertu dala edo Suez naiz Panama'ko ontzi-bidea itxi egin dala, edo laterri-arte guda arriskua dagoala... olako edo antzeko arazo bat

da naikoa gure etorkizuna bide barri batera sartzeko.

Gure ontzi-olak ez dauskue emoten olak eurak zabaltzeko itxaropen aundirik, guztiak dagoz beste lantegi batzuren artean eta kale-arte. Orregatik gure ontzigintza aundiagotu bear ba'da, beste toki batzutan lantegi barriak eginda izan bearko da. Bear ba'da Gernika'ko ibai-ertzak izan leitekez toki egokia, baiña zori txarrez erreka onek sakontasun gitxiegi dauka. Portu Nagusiaren inguruan bai ipiñi bear da ontziak konpontzeko toki egoki bat. Or bear ba'da ontzi-ola egoki bat ipiñi leike. Gaiñera orain urreratzen diran ontzi aundiak ezin sartu leiz ibaiaren bidetik barrurago.

Europa Batuak be ba-dauko zer-ikusia. Europakide diran beste laterri batzuk be ontzi-olen lana nai dabe eta irabazbide ori kideko guztien artean banatu bear da, burdingintzagaz egin dan antzera eta lurgintza ta aberegintzagaz edo arraintzagaz jazo dan antzera. Bide orretatik urrats asko emon dira eta gure ontzigintza urritu edo arriskuratu egin dabe.

Ontzigintza Bizkaiarentzat irabazbide aundia izan da. Eutsi dagiogun, ez dagigun galdu. Gaiñera antziñatik izan gara bizkaitarrak itxasgizon trebeak, Kolon baiño lenago eldu ziran gure bale-zaleak Terranoba'ra, Ameriketara. Gure trebetasun oneri eutsi egin bear dautsagu, bai arraintzan eta bai ontzigintzan.

OLAZAR'TAR MARTIN'ek.

